



**2018KO URRIAREN SEKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko irailaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 88 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (16.879,16 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO ESTALKIAREN EGITURA INDARTZEKO LANEN 2 ZBK.DUN OBRA EGI-AZTAGIRIA.-


Udaletxeko estalkiaren egitura indartzeko lanen obra zuzendaritza daraman Soroa arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun arkitektoak lanen 2. obra egiaztagiria luzatu du. Orain arte egindako obren zenbatekoa, guztira, BEZ barne, EHUN ETA BI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO 102.798,36€ da eta lehenengo obra egiaztagiria 78.422, 29€ zela kontuan izanda, orain ordaindu beharreko bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa, BEZ barne, HOGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (24.376,07 €)takoa da. Lanak burutzen ari den enpresa Ibarkalde S.L. da.

Udal arkitekto teknikoak ere bere oniritzia eman dio obra egiaztagiri honi.

Hau guztiaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- SAN BENITO IKASTOLAKO GALDARA GELA ERABERRITZEKO ETA GAS INSTALAKUNTZA BERRIA BURUTZEKO LANEN 2. OBRA EGI-AZTAGIRIA .-

San Benito ikastolako galdara gela eraberritzeko eta gas instalakuntza berria egiteko lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen bigarren obra egiaztagiria egin du, lanen likidazioa dena. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa, BEZ bar-



ne, BI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HIRU ZENTIMO (2.835,03 €)takoa da. Lan hauek Climatizaciones Orio S.L. burutu ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

V.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Kultura batzordeburuak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- San Benito Ikastola.-


San Mioletako jaien barruan, irailaren 29an antolatzen den herri afaria antolatzen laguntzeagatik, San Benito Ikastolako 1.go batxilergoko ikasleei 800 €ko diru laguntza ematea.

- Orobione jubilatuen elkarte.-

San Mioletako jaien barruan sagardo festa egunean, irailaren 22an, sagardo edalontziak saltzen aritzeagatik 187 €ko diru laguntza ematea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAO
UDALAK